Diligite inimicos vestros orate pro persequentibus vobis. math. 4.

maita çatçue çuen Etsaïac, Eguiçue othoitz çuen gaizqui eguilentçat.

Bere Etsaïen maitatcea, Jaincoa gatic eta harren araberá; hori da, En. d. m. Caritate funtsezcoa, hori da J. Christoren manamendu berariazcoa. Ego autem Dico vobis diligite inimicos vestros. nic erraten darotçuet maita detçaçuen çuen Etsaiac. Ezda beraz asqui ez mendecatcea, ezda asqui injurio edo ofentsa baten yasaitea errenguratu gabe, bihotzeco aihercunça eta Khirastasunic gabe; behardira orainó maitatu etsaiac amodio onguieguiazco batez, eta maithatu gure alderatco herra aguerriqui seinalatzen darocuten orduian berian. J. Christoren leguea hain da phundu horren gainean, clarqui eta çorrozqui ekharria, nun ez baititaque bertce sentsu batetarat ez itçul ez explica. Manatcen darotçuet, dioxaqu J. Christoc, erraten baleraucu beçala; orhoit çaitezte mandu aren erakhu-pen gucien gatic, çuen urguilu eta amodio propiaren estacuru gucien gatic orhoit çaitezte, nic çuen nausi calitatean, çuen legue eguile eta Jainco calitatean manatcen darotçuetala maita detçatçuen çuen etsaiac, othoitz eguin decaçuen heientçat. Ezda hau conseilu bat, bai manamendu hertsi bat ematen darotçuedana: Ego autem Dico vobis.

Bada, G. m. duda othe daiteque, gure izpiritua sumetitu behar den beçala fedea sinesteco marcatcen dituen gaucetarat, orobat, gure bihotza sumetitu behar dela fede berac eguiteco manatcen darozquigunetarat? baiequi, dorpheago balitzere yaunaren legueco phundu hau, baitezpada beguiratu behar guinduque; gure arimaco intres gucia ez doha, hori gabe ez benaz guerozti ez barkhamenduric ez Jaincoaren gure alderatco amudioric igurigutecco. Jaunaren Justiciaco erregla bat da, ofentsatu gutuzquetenen alderat beguiratuco dugun conduita bera, beguiratuco duela Jaincoac gure alderat, bertzer eguinduqueguun içari beraz içarduco gaitucela. in qua mensura mensi fueritis remetietur vobis. Barkhatu edo barkhamenduric ez iguriqui, maitatu edo Jaincoaren hudioan gueldditu, cer aldizca khiratsa! beguira orduan, g. herabe eta lotsacor aguertzeti, ceren Jaunac ez darocu lacotz gure haler goragocolic manatcen, bere gracia podorosaren laguntça ematen baitarocu, onguei gableguiten diguncan, gure flaqueciaren sostengutan. Arguigaitecen J. Christoren escola sainduan, eta compreni decagun onguei cer motibo behar guitutten etsaier barkhatcera beçala heien maithatcera ekharri, eta cer

erregla beharduguen hortharacotz seguitu. Barkhatu beharda 1º nola beharda barkhatu 2º &c.

1º P. Etsaien barkhatcea horien maitatcea, eta ahal becembatian, guciequin baquean yitia, manamendu baiterpadacobat dela eracusteco, asqui nuque en. ad. m. Profetez izraelzarrer beçala, erratea, hau da Jaincoac manatez duena; hæc dicit Dominus. Bainan ceruna[illegible] cuen faboretan nohaeta legue hunen cuen izpirituetan hobequi fincatceco beçala horren cuen bihotzer cachesta-tzarteco, frogatcera nohatcue, hoidela manu bat ez choilqui gucietaco aguerienа, bai ordean orano manubat osoqui cucena, eta guretçat probetchosena. Eguia batçu atencione seguitu bat galdequiten dutenac.

Ediren othe daiteque g. m. Evangelio Saindu[a]n leguebat aguerriquiago phausatua, autoritate guehiagoequin emana, hebadura guehiagoequin manatua, finian leguebat mehatchu eta gaztigu guehiago darraicona ofentcen barkhatceco eta etsaien maitatceco leguea baino? hortaz seguratceco ideçaçagun Evangelioa: cer irakhusteen dugu? caharrer erranç[a]ic dio J. Christoc, maitatuco duçue çuen lagun proximoa eta hastiaturen çuen etsaia; audistis quia dictum est antiquis: diliges proximum et odio habebis inimicum tuum. eta nic erraten darotçuet maita detçaçuen çuen etsaiac bere: Diligite inimicos vestros. Eguin deçaçuen ongui hastio çaituztenei: benefacite illis qui oderunt vos. Eguin deçaçuez othoitz gaizqui tratatcen çaituztenençat: orate pro persequentibus vos. othe da g. m. legue hau baino aguriagoric? cer funtseco deiteque horien sentsuaren gainean? Possible othe da J. Christoc hobequi senbieraguin ceçaqun gure etsaien barkhatceco obligacionea horien maitatceco eta horientçat othoitz eguiteco manua emanez baino?

Bada deusec ere ezdarocu frogatcen J. Christoc obeditua içan nahi dela manu hortan, horren emaiteaz erakhusten duen autoritatezco thornuiac baino. Etsaien maitatceco legue hori ithun eta comprenigaitz çaucatena J. Christoc arguitu du legue hori sentsu makhurrerat itçuli cutena, J. Christoc bere Eguiazco sensura du, legue imperfet bat celaric testament çaharrean, perfet eguin du Evangelioan. ni naiz, erraten du, mintço naitçuena, nic manatcen darotçuet maita deçatçuen çuen etsaiac: Diligite inimicos vestros. Jainco bat mintço çauacu berac. g. m. behar othe da guehiago manamendu hortarat gure plegarazteco, den baino gogorrago balitz ere? Baldin quiçon batec manatcen baleraucu hori ichardeto ahal guinçaque sobera handia dela eguin çaucun ofenta. barkhamendua

ematen. Baldin luzeco handi, autoritate soberanoa dakharquenen baten manatzez
baleraucu, luça ahal guenezaque mendecuiva, eta eman camporatco barkhamendu-
-aren seinale cembait, aiherçunça gaichtoa gure barnean beguiratuz gorz edo-
berant campora laiteguena. Bainan Sainco bat da mintço çaucuna, harrec
harrec manatzen darocu; harrec gure fidelitatça eta obedientcia frogatzecoenna-
-ten darocu orgui dohacon naustitamenza tronu batean: maita çatçue cuen etsai-
-ac: Diligite. Bada, g. cer oposa ahal daqueioque horrelaco ordre bati? Soberano
beçala mintço da. Eta guehiago dena, ez da contentatzen bere intentcionearen aldi
bat edo bertcea marcatceaz, errebērritzen du hurren Evangelico pagina guzietan.
Barkhha çaçue erraten du, ofensatu çaituzten aldi oroz; ez deçoçuela çuen lagun
proximoari khondurie atchic horrelaco çorrentçat, içan çazquiote miseri-
-cordios; horra cer deitzen duen bere manamendu berria: mandatum
novum do vobis. Eta gucien ondoan seguratzen gaitu ez gaituela seinale
hortan baicen eçaguturen bere discipuluen nombreco: in hoc cognoscent
omnes quia discipuli mei estis si dileccionem habueritis ad invicem. Bada, g.
m., cer indar berri ez deraie oraino legue sainduhorri ematen hori hausten dute-
-ner eguin mehatchu latzgarriec? J. Christoc manatzen ditu bere
hasarradura, eta eternitate gucico herraz bere etsaiac maitaturen ez
dituztenac, hoyer cinqui barkhatu nahi ez duten guciac. goardia hemen,
abitzen naucun arima Christava, ecen Salbamenduaz dohanian ez da disi-
-mulacioneric baliatzen. Nahi cira Damnatu hastia çatçu çure etsaiac, nahi
cira Salbatu maita çatçu etsai dauzcatçunac. Baldin mendecatzen bacira
çure pardidatzen gainean, J. Christoc ematen du çure contra heriotze eterna-
-leraco sentencia, misericordia gabeco yuyamendu beguiratua dagotçu,
bertcer misericordia ez eguitea gatic. Judicium sine misericordia ei qui non
fecit misericordiam. Baldin barkhatu nahi baduçu, cerutaco erresuma
içanen da çure saria: Beati misericordes. Sainco yauna bere gracien nausi
da, eta ez ditu phartitzen nahi ducenean, nahi duen beçala, eta nahi duen condi-
-cionequin baicen. Fede Sainduaz datça hemen, g. m. goardia beraz huni
ongui, fede sainduiac diakhargu; Sainecoac ez darotzeguela nihorc ere bar-
-khaturen gure bekhatuac, ez baditugu guhorc barkhatzen eguin çauzquigun
ofentçac; ez gaituela nihorc ere bere adisquidançan sainduan errecibituren, ez badugu
adisquide marcatzen, gaizqui eguin darocunari, urricalmendu gabeco aguert-

dela gure alderat halaco aguertcen baguira bertceen alderat, fede bera-
diakhargu orano içan guenetçaz guiela ri ere berthute eta obra onbuerte
guciac, seculacotz damnatuac içanen garela, bereçquin guciequin, —
ofensatu gaituztener ez barkhatceco arima gogor eta themaxu
bat beguiratceen badugu.

Orai beraz, arima christavoa, ecaguitcen othe duçu seinale hautan
J. Christoren borondate determinatuia? Seguratuia othe çaude bitza
atchiquico duela? iduritcen othe çautçu emendatuz mintco dela mada-
-ricione eternal batez cargatcen duenean Jaincoaren barkhamendua
iguriquitcen duena, berac bertcer barkhatu gabetaric? Bada cer-
-tarano da horren ondoan ekhartcen duçun estacurua, diculari, eguin
çautçun afrontura handiegua dela barkhatceco, ez duqueiela Jaincoac
horrembertce galde eguiten? ongui beldurra içanen baitcira J. Christoren
tribunalian aguertcitceenean çure eternitateratco çoriaren hartcera. —
Jauna, erranen dioçu beraz, çure icenean mintço çaitan eliçaco mi-
-nistroen erran eta instrucione guçien gatic, ecin nihola ere sinhetsi dut
damnacione eternala çagoela norbeitcat, ez barkhatceco hobenaren gaztigutan.
Bainan ihardetsico darotçu yuye dorphe harrec, ceri çatchicon ez baitcinen
enganio hortarie yalguitcen? munduco maxima eta erakhuspenac ala
eliçaco ministroec explicatceen çaroz quitcuten hobequi ebangelio saindua
eguia cerutarrac? çoinen bidez behar zinduen erreglatu çure phentsatceco
manera ez othe ~~da~~ narotçun anhitz aldiz eta manera diferentez adi-
-arac çure alderat ekharrico nintceela çu bertceen alderat beçala? çure
çorigaitz eternaletan gogor tu cira beraz erreligioneco phondu handi
horren contra. O! guiriztino naguiac pasioneer buru eguiteaz datçanaz,
barkhatcea sobera gosta behar dela çautçue orai. Bainan gutiago goztaco
othe çautçue egun batez, yuye soberano harren ahotic adi deçaçuenean
sentencia laztagarri hau: urrun çaitezte nere ganic. Discedite à me.
mila madaricionez estaliac çarete çuen bihotz khiratz eta gogorren
gatic. Maledicti. cohazte su eternalerat in ignum æternum. hora
q. ceren artean hautatu behar duçuen, nahi eta ez, ebangelio sain-
-duac ez darocu bertce menturarik uzten.

O! beraz guiçon soberbiosa nola hauts eta herrauts baicen
ez haicelarie atrebi othe haitteque gogortcera leguin batez —

contra, ceina J. Christoc guçahalctaco equin baitu bere laguntçaz graciaz eta haiz çucenbidezco bere autoritateaz! ecinez othe ditaque legue bat hobequi bere lekhuian eta çucen bidean dena gure descantçu eta bicitceco baque ona darraicon legue bat baino? demogun attentione arroçoina mendu huni. Eta othe da equia bat esperentciaticacoa, herran goçortcea, eta baquetceari errefusatcea dela bere etsaien emendatceco bide segura? ez othe seguretsai batee bigarren bat equiten darocula ardura, cembat ere presunari bere alderatco errenguraz equiten baititu eta hambertce presuna hotzarartez duela gure alderat? horra beraz, bihotz, caritate escasa, nundic biguingarri equinarazten caituen partida harrec, bertcen bequetan. Cembat nahi arroçoin içan deçaçun hoben emanen darotçute, harren medisentcia eta calomniac çure bertceo hedatuac sinhetsiac içanen dira, guehienez; ez cirenarentçat pasaraçico çaitu, eta cembat ere presuna bathuco baitutçu çure bidectan, hambertce çutaz gaizqui yuyatçaile, çure urhatsen burrandari eta çure ehede onen critticatçaile edirenen duçu, nundic darraiçun present hori hambat asmatu ahal gabetarzie. mancraz nun mendecatcetic edo hostatsun suerte bat erakhurtetic irabaçico duçun guçia içanen baita, tertulien handiac dioien beçala, çure arimaren bidegabestatcea, çure ohorearen bederen mendrarartea, eta descantsu ez soseguric gabe gueldiitcea.

Alaguiriztino bere partidari barkhuia eta amodioa bihurtcen diozcanac cer nahi ofentsen gatic, goço eta atseguin solido guehiago edireten baitu hortan ecen ez mendecatcean! froga equin ducnac baitaqui ofentsa emaitcen Jainoaren amorecatic maitatceac, bihotzeco sendimenduac desegüiteti eta bere intresac contrariatcetic urrun, satifitcen dituela contrarat hala bihotza nola izpiritua, barne descantsos, contiencia baquezco, eta atseguin solidoac ediren arazten dituela.

Eta funtsian, q. m. nun guinitazque mendecuia bilegui laitequecilaric? cer asaldu eta nahasmendutan ez laiteque yar mundu hau guçia? bathedera autorisatua sendi laiteque ofentsari chumeenaren gainean arroçoin galdequitera eta aspertcera. hortic beraz bethierceco gudiac; hortic ethe gaizqui aditu batentçat hain onguí colpeca eta odol sarratsquiac, brauço eta ahaideac nahasiac, mancraz nun, arquenentz, elgar ecin aditur, ez baitlitaque ikhus yende elgarren phorroscatçaile eta irescailera baicen. O Jainco yustutasuna bera carena ala çuhurqui yaçatu baitutçu gure pasioneer bedarri hertsiat eman behar cinarçotela atzequi guti aspii baitçuqueten lurrean hedatu nahi içan-

duçun baque ceruetarren desequiteco.

Cembat ez dira beraz funtsgabeco mendecuiorat daramaten estacurruac?
Exemplu batez arguituren darocut hau. Presuna harrec ez çaitu salutatu, diocu;
çure goztuco ez den solas cembait atchiqui duque, usatu ez beçalaco aire hotz
bat erakhutsi darotçu; orduts gaitz nahi darotçun etsai bati beçala
behatcen dioçu, çure phartetic; eta cer fundament duçu horrela yujatceco?
cer bada, çure furiaren eta aïhercuntçaren carga yasaitea merecitu du
presuna harrec, ceren bere umore gaitza dela medio eta diztracione bat
dela causa, ez den ohi beçalaco aguertu çure aldera? ceren gauça bat edo
bertcea erran edo eguin duquien çure desgustura, beharbada bihotzac
malicia gaichtoric chumenena ez duquielaric içan erratez edo eguinça hartan?
baina duçun eman orano malecia(z)co hoben batian erori dela çure alderat,
çuri othe dohatçu mendecatcea? ez othe du Jaincoc yaunac beretçat erresal-
-batu mendecatceco çucena? mea est ultio. ez othe cira seguratua içan
behar harren yusticiac punituco duela, çuc barkhatu arren, gaizqui eguile
hura, nahiz ez çautçan cithegui horren ere desiratcea, bai misericordia
ardietz deçan? cer ofentsa ez dioçu beraz ematen yaunari hain ausarqui
alchatcen çarencan barkhatceco eguin, darotçun manu sainduaren contra, eta beretçat erresalbatu duen
mendecatceco çucen hura eramaten dioçunean? mea est ultio frogatu cautçu
dela manamenduzco çucena, eta cuhurrena. Compreni çaçu orano homez
manamendu horrec ecartcen duela ere içaririk hiqualena guiçonen artean
eta huna cergatic.

Aguerida çure ere munduarequin atchiqui behardeçula, ez da gutiago aguiri
ezcirela çure aldetic defautic gabecoa. Egun çure laguna proximoac ofentsatu
caitu, bainan ez othe duçu beharbada çuc ere haina hura, bihar ofentsaturen?
bada orduan çuc ere hainaren barkhamendu eta pacientciaren beharretan
khausitcen citarque, egun hura çure alderat beçala. Ez duçu ceren sustenga
ez duçula nihori bidegabetaric eguiten batbedera itxuda bere buruaren
alderat, oharcaberic ardura, maleciaric chumena gabe, hain ongui
ofentsa bide ematen ohi da. Batbederac baditu bere escas suerteac, hala
omore gambioac, nola bicitasun handiequiac. nun cinitaque baldin
bertcek atchiqui ditucquetçun solas ohore mendragarrientçat, edo
equitate damu eguin garrientçat yacarri behar balerautçute hain hec?
nola beraz hain çucen eta fagoragarri edireten duçularic bertcec çuri
barkhatceco legue bat injustu eta dorphegui khausi cenecaque legue bera

Çu hori obligatione bera marcatcen darotçutencan?

Bai ciopu, q. m. injurioen barkhatceco leguea otsopu abantailosta da gucientçat, ceren gure intresic handienac hortan baitatça. Barkhatcea gure probetchu handitan dela frogatceco uzdetçagun aipatu gabe mendecatceas darraizco barneco eta campoco trubleac; hori guci batian hortic causatcen ohi diren escondalac. Batitaque hortan berian mendecaua madaricaraztecoarracoin sobratu. Bainan contsidera deçagun baque saindu eztic eta maitagarri hura barkhatcean khausitcen dena. Ceina obartcen baitcan berecique lehembicico guiriztonetan, ezcen gucien baitan ebiztcen, dio escritura sainduac, bihotz bat eta izpiritu bat bera baicen. *Cor unum et anima una*. cer urustatsuna cer baque goçoa heien artean! caritate sainduac guidatcen cituena, elgar yasaiten çutena, herra menduciuo eta aihercuntça guciac ithotcen cituztena! o. nere Saincoa, dembora hec deith othe daitezque, horin ondore loriosac darraizcon legue bati, landoriu eman gabetaric?

Eta alabainan q. m. gure burucien seguratceco, gure intres handiaz dohala damic erreçibituen barkhatcean, arroçoin temporalen beharretan othe guitazque? bain urusqui dakharquegun guiriztino calitatea berac ez othe luque desarmatu behar gure mendecurioraco pasione dohacabea? Galberiuco haurrac, Evangelio Sainduco Dicipuluac, ideçaçue liburu saindu hori çoinaren arabera içanen baiquira yuzatuac çuec eta ni, eta han ikhusico duçue pagano gucietan escribatua çuen çuen condenamendua, ez choilqui etzai arri ez barkhatcea gatic, bai ordean orano harren J. Christoren arabera ez maitatcea gatic. Batian ikhusico duçue Sainco Jauna cuhoren guiconetaratco misericordia harturic çuencat içan behardu-enaren condicione eta içaritçat, ez dela misericordios içanen bera halaco aguertu denarentçat baicen: *Beati misericordes quoniam ipsi misericordiam consequentur*. Bertcian yaquinen duçue aldare sainduen aintcinean eguinen dituçuen bihotzezco eta izpirituzco ofrendac ez direla nihoz ere onhetsiac içanen, nun eztçaretez aintcinetic baquetcen çuen lagun proximoarequin *Vade prius reconciliari fratre tuo*. gucietan ikhusico duçue ezçauzquitçuela nihola ere çuen bekhatuac barkhatuko, nun ez duçuen ofensa aldi oroz barkhatcen: *usque septuagies septies*

Urrun beraz guetaric, q. m. ofensen ahantz leco eta gaizqui eguiten darocuten maitatceco manu sainduaren contraco errenguraac. Cembat gogor eta garratz baitituzi preça deçagun lehenago horren abantailac, horren bidez seguratcen denaz guerortic bekhatu gucien barkhamendua eta biciteco sosegua ez çautcu galdeguiten gure indarrez goragocoric, fede bici bateo ardietsi laguntça ceruarrequin compli ez deçaqueguna. Ez da questione barur garratz batçuen

yasaitear, gorphutçari penitentcietan dorphequi sofriaraztear, munduari ukho eguinic desertuetarat penitentia eguitera goatiar: horiac ez litazque guciec menecco; hemen galdeguiten dien gucia gure ahaletan da. Borondate on bat aski da, dio Jondoni Paulec, delibera fermu bat: prope est verbum in corde et in ore tuo. ah! nun da gure fedea, eta anima christava, hoin urrun guelditcear martir generoz hetaric, ceinec, Elizaco aiten araberá, curaie guehiago erakhutsi baitçuten afrontu eta injurioen gogotic barkhatecar, ecenez heien gorphutcer pairaraci thormentetan; tirano thormentatçaile heientçat kharguei othoitz eguiten baitçuten, bere burreuac gomberti--arazteranocoan ardura, bere caritatezco manera amultxuen seriaz, eta heientçat ceruari adreçatu hesagora sainduen bidez: gure idurico guicon batuec ciren, ochala imita guenetçan! Bada hortaracotz ikhus deçagun nola behardugun barkhatu.

2. P. Sobera galdeguiten othe çautçue: g. m. Erraten cautçuenean barkha deçaçuez barkha deçaçuen bertcer, Jaincoac cuhori barkhatceen darotçuen beçala? guiristionen perfeccionea datça Jaincoaren nolaizpeico iduri saindu bat har--tcean. Bada nundic heltçaitezquete gakhienic, Jaincoaren iduri hortara? inju--rioac barkhatuz, etsaiac maitatuz; ceren bide hortaz harren imitatçaile eguiten baitçarete, hortic harren haur leyalen figura eguiazcoa biltcen baitçuçue: ut sitis filii patris vestri. Bainan nola ekhartcen da Jainco on hura gure alderat? eta nola behar guira ekharri guhor ofentsatu gai--tuztenen alderat? Jaincoac sofritcen gaitu cembat errebel içan baguit--çazco, eta aintcinera heldu çaicu, errannahi da gure ondoan lehembicico urhatzac eguiten ditucla: guehiago oraino, iguriquitcen gaitu; eta lucero iguriqui gaituen ondoan, errecibitcen gaitu hura ganat, funtsez, bihurcen garen bezetic. 1.° Jaincoac yasaiten gaitu, eta noiz? noiz eta ere harren otsu sainduer gor eguinac erreboltaco bandera harren contra altchatcen baitugu. nunguintarque çuec eta ni. g. baldin bere yusticia baliaraci içan balu? 2.° ez gaitu chiloqui yasaiten bainan aintcintcen gaitu oraino. guciz handi delaric arren eta gure nausi Soberanoa, lehembicicoa da gure gombidatceraeta deitcera. ez du guphidezten, gure irabaztea gatic, amodio attacaraco baten urhatsotaric batere. Badiruri fagore bat bilhatcen duela gutari, lehenago etcen ez bar--khamenduaren ofreitcea 3.° Bada guti da. oraino yaun on harren phartetic aintcin guitcan hiquriquitcen ere gaitu O! caritate mirestgarria! ecen baldin iguriquitcen bagaitu, gutaz urricalmendu içatea gatic iguriquitcen gaitu, erraten du profetabatec; Expecta ut misereatur. Gure lucamen eta habe-

-ncea

berant hets hobenezco gucien gatic, ezda guibelatcen. Suya daiteque bere justiciaren çucen gucien gainetic iragan nahi dala bere misericordien hedadurari cedarriric ez usteco. 4.º finean hambertce ontasunezco seinaleen ondotic, helduda orano barren gutaratco amodio yenerosaren marca handiagoco bat. gure baitan sartcen garen beretic, bera hedatcen darozquigun eta bere gracian phartitcen, nihoizere ezbeçalaco abondantcia batequin: funtsez gambia dadin gure bihotza, ahantzten du iragana, eta ordutic erreberritcen gaitu bere baque sainduan.

Orai beraz g. m. lausenga othe guitazque gure etsaiac maite ditugula, eta barkhatcen diogutela Saincoac barkhatcen darocun beçala? Ecen lehembicicoric Saincoac yasaiten gaitu, baba yasaiten othe ditugu gure ofensatu gaituztelaco hec? Ez othe guira, lehen, libratcen heien contra elhe apoliozco eta damugarrietarat? Ez othe guira lehenago entseatcen gure escatima eta nahasturia bertceer laudaraztera eta premiaric gabe heiez, gure aiher cuntzetan, sarraraztera? 2.º Saincoaren gure alderatco amodioa aintcintcailea da, lehenbicicoa da gure deitcera eta bilhatcera; hola othe gohatu ofensatu gaituztenen alderat? onhertero oki da baquetu behardela, bainan nore nahi ditu eguin lehembicico urhatsac? ni naiz lehenic ofentsa errecibitu dudana, arranen du batec, ezda nore eguinbidea lehembicico urhatsen eguitea. Eguia da g. badirela casu barkhantiar batçu, cainetan ezbaiquira erligioneaz obligatuac ofentsatu gaituzteneen alderat onhestate particular eta camporaco batçuen lehenic eguitera: horrelaco dudetan hartu behar da abisu guidari izpiriatuala baithan. Goardia ordean g. ezçartela hurrer nihozere, casu hortan. Eta nola bakhotchac bere uzteco arraçoinez itxutcen ohebaitute ezdela ceren bethi iguriqui hoben guehien duena lehenic humiliatuco dela. Bertce alde içan çaitecen lehenic ofentsa errecibitua ez alabai, ez othe da atopu çure hottatunac escandala suerte bat eman deçan lehembicico abantcuetarat cuhor obligatua içateco, urricaltcen duculaic partida hura Saincoaren amorengatic bere yite gaichto eta berthute escasa dela causa.

3.º Sainco onharrec iguriquitcen gaitu bere misericordian. Bada cer behar othe da guehiago bihotz mendecari heier ahalque emateco, cainac lehembicico ofentsa iduri penezcoan berian baitohatci goraqui arraçoin galdeguitez aditcen dutelaric, baitez pada, partida heiec eguin detçaten abancuric dorpheenac eta urhatsic humiliagarriena, barkhamenduric iguriquiteco tz 4.º finean, Sainco-

pacient harrec betsa hedatcen darocu, gure guilamenduen gatic ondotic darraicu guic bihotza muguiaraziten dituelaric bere gracia Jainkoac. Badaiteguiteen othe duque molde divino hori? ala urrun baita! presuna batec eguin badu urhats arin bat baquearen ondoz. Bainan probetchuric gabe, hori asqui içanen da bere partidari hostarun handiagoen baten ekharceco. Eguin dut erranenda, nic aldetic eguin beharrnuen gucia, nic eguiteco othe dira hurrats gucien? ez du merci presuna harrec abantçuric eguin daquion. horra pazimearen etsequia. Bainan, guiristono ephela, nola aditcen ducu, partida harri bere amorecatic ala Jaincoaren amorecatic barkhatu behar çaiola cautcu? bere ez duela merci dioçu, badaiteque, bainan Jainco justuac ere ez othe du merci obedi decaçun harren manu saindùaric, parti harra ez du merci, ez çu ere ez ducu merci Jainco handi harrec barkha diaçacun, nun othe cinitaque çure meritucen araberatratatuia bacina? merecitu baituçu naqui Jainco on hura çure ondotic ibil cadin çure hordiqueria eta lohiqueriren ondoan, çure calomnia edo bederen medicentcia eta arraport gaichtoheien ondoan, çure sallamendu-ratco ez acholatasunaren ondoan? O! bihotz gogorra çureco barkhamendua-ren ardiestera iguriquico cira orano, horrela themateaz Jainco baten manu-etaco çuenaren contra! ah! g. yuya detçaqun guere buraiac phondere-horren gainean. Ez bedi içan çuen artean, erraten ceraien colosiarrer yondoni Paulec, ez bedi içan ez nahastura ez escatima craun decaqueçini, baldin çuen laguna proximoac içan badu çuen ofentzaceco hobena, Jaincoac barkhatcen darolçuen beçala barkha çoçue. Sicut Dominus Donavit vobis ita et vos.

O! bihotz mendecariac, cer içanen othe duçue ihardesteco Jainco Justuac deitha citçatenean bere yuyamendura, eta erran diçaçuenean, Evangelioan aiphu den nausi harrec bere serbitçariai gogorraci beçala; serbitçari gaichtoa ez litu diat hire alderat nere hassarradura gucia, hambat aldiz, hire çorrac barkhaturic: omne debitum dimisi tibi. Ez othe huen urricalçapen bera içan behar hire laguna harren alderat? nonne oportuit misereri conservi tui? mintça hadi, cer escusa duquec hire burruaren garbitceco? eguin cauian ofentsaren handitasuna othe? bainan içan othe haiz nihortaz hain gaizqui tratatua, nola ni hitaz? Bizquitartean barkhatu derauiat. omne debitum dimisi tibi. hire aiher contza gaichtoa satisfatu duc, atseguin malin bateguin ikhusi duc partida hura azpiratua, hire mendecuisceco entseincz nahigabeztatua, ez duc içan moyen suertia ez othoitza ez arartecotasuna hire bihotz

Khiratza irabaci ahal duqueiena. Bada hori bera içanen duc seguitzeco dudan erregla, hire çorthe eternalaren decidatceco. Hambat aldiz galdatu darotac, barkha dieçadaçut yauna, ni bertcer barkhatceen dudan beçala — *dimitte nobis sicut et nos dimitimus*. Entçuna haiz hire othoitzean, hire barkhatceco moldea içan duc onguí mendecatcea, edo bederen herra gaichtoaren beguiratcea, nere herra eta mendecioac çagozquec ordainez hireçat. *Sic pater cœlestia faciet vobis.*

Segui naçaçue g. herraxuiac, civien bertce ordiz San Agustinec, igan çaitezte nerequin, izpiritus galberiros mendira: finca çaçue cuen beguiac J. Chrizto cen gurutcearen gainean: beha çoçue, considera çaçue. *vide — pendentem.* Ecaguturen duçue, erraten du, dotor harrec, nola maitatu dituen bere etsaiac: *audi clamantem.* nere aita, equiten du oihu, barkha çoçute nere etsaier; *Pater dimitte illis.* orbean norentçat escatcen du — gracia eta barkhamendu? ah! norentçat bada baicilare heriotceric cu- -delen eta injustuena pairarazten deraienentçat. heientçat othoitz equi- -ten du trufaric handienac equiten deraizten mementian bercan eta guchiago dena escusatu nahi ditu orano bere aita Jaincoaren aintcinean, ezdaquite cer hari diren bere pasione itsuian. *nescient quid faciunt.* Escusatcen ditu, eta heien crimen barkhamendua ardiesteco tan ofrete ditu ceruco Justiciari emaiten deraizten insulta eta laido guciac, hala nola ichurarazten deraien odol sacratua. Bainan g. m. bere orduco etsaiec chilopui equin Othe çuen othoitz eta ichuri bere odol sacratuia, ez othe hain onguí çuentçat, o! bihotz super eta mendecariac, eta halaric bardin esquergaitz eta gogor aguertcen baitaitazquete harren Exemplu handiaren alderat nola orai berian diakharqueçuen amodio onaren alderat? odol harrec, odol sacratu harrec berac çuentçat misericordia — escatcen duenean Jaincoari, galdequiten darotçue ere cuhore misericordia bera equin deçaçuen etsai heier? Bainan ez baduçue bertcei equiten misericordia, ecin ardietsico du çuentçat cerutic. Ez çare beraz orano erortcen, bihotz — mimbera beccin Khiratza, equia cerutar hautarat, çu yaunaren legue çure thema eta buruzquinaren araberá explica deçaquecula pentsatcen duçuna, misericordia eta baquezco discurts hontari lekhora, ez cira entsaiatu nahico çure aire indiferent eta hotçac çutarie urruntcen ducr

presuna harrequin baquetceco bidean hartcera cohaz beraz eta continua-
çaçu harren hastiatcen; bainan hartarat deliberatu gabe adi çatçu-
tenic, Jaunaren leguac beguiratcen darozquitçun madaricioneac,
eta ikhasaçu cerpenaren azpian manatcen çaitçun etsaien-
maitatcea. Baldin balimbada presuna chil bat lurraren gaine-
-an, ceinari ez baitioqueçu behatcen J. Christo baitago anaia bati
beçala, eta ez baitu queçu oin hortan maitatcen, ez da guehiago aitaric
ceruan çuretçat. Baldin hain-harc ez badu edireten çure baitan
adizquidebat bere behar orduian laguntça emanen diocuna ez da
guehiago J. Christo çure salbatçaille çure salbamenduco behar ordu-
-ietan, Baldin ez baduçu partida harrequin deusetan ere khutsatu-
nahi, deusen hirriscuric ez içan arren, ordutic izpiritu sainduac
hausten ditu çurequin comunicacione eta dohain partitcea guciac.—
Baldin errefusatcen baduçu hain-harren ikhustea bera, yaunac deli-
-beratçen du ez çaituela seculan bere presentcia maitagarrian errecei-
-bituren. Hoin disposicione gaichtoetan çaudeno, eguiaren cadira
hau ez da guehiago eguina çure condenatceco baicen. Penitenciaco
tribunal horiac ez dira idequiren çure absolbitceco. Narrayoric gabeco
Bildots sacratua ez da ordutic imolatcen çure santificatceco. Ceroni
ecominicatcen çare gure altare sainduco sacramendu adoragarritic.
ba a çorigaitz çuri! atrebitcen baçare bertce sinhetsdunequin erratera
Jauna barkha dietçaguçu gure çorrac gue gure ganat çordun direnei
barkhatcen darozteguun beçala: çure condenamendua declaratcen
duçu, ladatcen çure erreprobamendua, eta onhesten guertha daquiz-
-quitçun damnacione eternalaren çorthe latzgarri guciac.

Absit.